

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Udalaren liburutegiaren kudeaketa zerbitzua gauzatzeko kontratua esleitzeko deialdia

Alkate-Udalburuak, 2018ko martxoaren 7an hartutako erabakiarekin bat etorruta, Udalaren liburutegiaren kudeaketa zerbitzua egitasmoa gauzatzeko kontratua prozedura ireki bidez esleitzeko deialdia egiten da, ondoko datuen arabera:

1. Erakunde esleitzaila.

a) Erakundea: Barrundiako Udala.

b) Agiriak eta argibideak eskuratzea:

– Bulegoa: Barrundiako udaleko bulegoak, 10:00etatik 14:00etara.

Proiektuaren kopia paper formatuan eskuratu ahal izango da udal bulegoetan.

Iragarkia eta baldintza agiria www.barrundia.eus web orriko kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

– Helbidea: Boilar kalea, 12 – Ozaeta (01206).

– Telefonoa: 945.317.006.

– Telefaxa: 945.317.126.

– Helbide elektronikoa: ldazkaria@barrundia.eus.

– Kontratatzailearen profilaren Interneteko helbidea: www.barrundia.eus.

– Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte (hamabost egun izango dira iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Azken eguna larunbata edo baliogabea balitz, epea hurrengo egun balioduneko 14:00ak arte luzatuko litzateke).

c) Espedientearen zenbakia: 2018/01.

2. Kontratuaren xedea.

a) Kontratu mota: zerbitzuak.

b) Azalpena: udaleko liburutegiaren kudeaketa zerbitzuak.

c) Gauzatzeko tokia: Ozaeta - Barrundia.

d) Gauzatzeko epea: 2018tik-2021 era.

3. Izapidetzea eta prozedura.

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: irekia.

c) Esleipen irizpideak:

– Prezioa: 55 puntu.

– Txosten teknikoa: 45 puntu.

Ebaluazio irizpideak baldintza agirian zehaztu dira.

4. Lizitazioaren oinarriko aurrekontua: 33.884,40euro gehi BEZa (7.115,60euro). Guztira: 41.000,00euro.

5. Bermeak. behin betikoa: esleipenaren ehuneko 5 (BEZa aparte).

6. Kontratataren berariazko betekizunak:

a) Sailkapena: ez.

b) Ekonomia eta finantza arloko kaudimena eta gaitasun teknikoa eta profesionala.

Administrazio baldintza administratibo berezietako hemeretzigarren klausula.

7. Eskaintzak edo parte hartzeko eskabideak aurkeztea.

a) Eskaintzak aurkezteko epea: iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo hamabost egune-tan. Azken eguna larunbata edo egun baliogabea bada, hurrengo egun balioduneko 14:00ak arte luzatuko da epea.

b) Aurkezteko lekua:

– Bulegoa: Ozaetako udaletxean, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara.

– Helbidea: Boilar kalea, 12 - Ozaeta (01206).

– Postetxean bidalketa egin daiteke. Halako kasuetan, egun horretan bertan, 14:00ak baino lehen, eskaintza igorri egin dela jakinarazi beharko da faxez, telegrama edota posta elektronikoz. Nahitaezkoa da baldintza hori betetzea, eskaintza onartua izateko.

Eskaintzak aurkezteko epea bukatu denetik 10 egun igaro badira, ez da onartuko postaz bidalitako eskaintzarik.

c) Lizitatuzaileak eskaintzari eutsi behar dion epea: kontratua egin arte.

d) Aurkeztu beharreko agiriak: administrazio klausula agirian adierazitakoak. Horrez gain, agirian jasotako eskaintza ereduaren arabera egingo dira.

8. Eskaintzak irekitzea:

– Administrazio baldintza administratibo berezietako hogeita batgarren Klausula.

– Helbidea: Boilar kalea, 12 - Ozaeta (01206).

9. Iragarki gastuak. Ez dago iragarki gasturik.

Ozaetan, 2018ko martxoaren 8an

Alkatea

AFRO OLABE MARTINEZ DE ALBENIZ